

Kostuen egitura

Mota desberdineko kostuak edukiko ditugu: kostu finkoak, kostu batzuk gure egitasmoa aurrera eramateko, kostu aldagarriak eta eskala ekonomikokoak.

- Kostu finkoak

- Materiala. Produktua gauzatzeko behar izango diren alementuak agertzen dira hemen. Gure kasuan: berogailua, motoreak (3 edo 4), Raspberri Pi-a, sentsoreak, elikatze iturria, pantaila, karkasa eta barrutiko zirkuitaria eta kableak.
- Produzinoa. Makineria.
- Lokalaren alokairua. Normalean hilabetero ordaintzen den kopurua produktuaren fabrikazioa eta salmenta gauzatzeko.
- Argia, ura, Interneta, zergak eta abar. Lokala eta enpresa mantentzeko ordaindu behar den dirua.
- Publizitatea (RRSS, TV, radio...). Gure produktua kaleratzeko garaian, jendeari aurkeztu behar da. Publizitatea da jendeari jakitera emateko modua, bai internet bidez bai metodo tradizionalagoekin.
- Soldatak. Langileak ordaintzen duen dirua guretzat lan egiteagatik.

- Kostu aldagarriak

Gure enpresaren muina produktu elektriko-elektroniko-mekaniko bat da, beraz matxurak sortu daitezke bai zirkuitarian bai elementu mekanikoetan. Ezuste hauek galera edo gastu ekonomikoak sorrarazi ditzakete. Honetaz gain erabiliko dugun materiala, eraikuntza bai konponketarako, kopuruaren arabera aldatuko zaigu.

- Eskala ekonomia

Geroz eta produkzio handiagoa izan produktu unitarioaren kosteak ere jaitsi egingo dira; era berean, geroz eta denbora gehiago eraman produktua produzitzen geroz eta produktiboagoak izango gara (esperientzia).

